

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MUGIKORTASUNEO ETA LURRALDE
ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

188/2023 Foru Agindua, 2023ko maiatzaren 2koa erregaien prezioaren igoerak bereziki eragindako enpresa eta profesionalen laguntza zuzenak emateko prozedura arautzen duena.

2022ko otsailean Ukraina inbaditzeak ondorio garrantzitsuak eragin ditu eremu guztietan, eta Europan batez ere 2021eko bigarren seihilekotik jasaten ari den energia-prezioen krisia larriagotu du.

Ukrainaren aurkako eraso militarrek eragin duen erregaien prezioen igoerak enpresetan eta profesionalengan izandako eragina berehala arintzeko, 2022ko martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretua onetsi zen; horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan, errepidez eta trenez egiten den garraioaren sektorerako. Gerra-gatazkak aurrera jarraitzearen ondorioz eta, era berean, gatazka horrek prezioen maila orokorrean dituen ondorioek jarraitzearen ondorioz, bigarren neurri-sorta bat onetsi zen, 2022ko abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez.

Egoera horrek irauteak errepidezko garraioaren sektorerako zuzeneko laguntzak berritzea justifikatzen du, eta, horretarako, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretua onetsi da, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta Palmako uhartearen berreraikuntzari eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko neurriak buruzkoa.

Adierazitako abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 39. artikulua zehazten du euskal erakundeek dutela, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten eskatzaileei dagozkien laguntzak kudeatzeko eskumena.

Horiek horrela, foru agindu honen bidez, erregaien prezioen igoerak bereziki ukitu dituen enpresei eta profesionalen zuzeneko laguntzak emateko prozedura eta dagokion funts-hornidura arautzen da, adierazitako abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 39. artikuluan xedatutakoaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundiari baitagokio.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Erregaien prezioen igoerak bereziki ukitu dituen enpresei eta profesionalen zuzeneko laguntzak emateko prozedura.

Bat. Xedea eta aplikazio-eremua.

Foru agindu honen xedea da energia-produktu jakin batzuen prezioa ordaintzeko zuzeneko eta aparteko aldi baterako laguntza emateko prozedura arautzea. Laguntza hori enpresa hauentzat da: errepide bidezko garraioeko enpresak, erabilera profesio-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Dirección General de Movilidad y Transporte Público

Orden Foral 188/2023 de 2 de mayo, por la que se regula el procedimiento para la concesión de ayudas directas a empresas y profesionales especialmente afectados por la subida de los precios de los carburantes.

La invasión de Ucrania en febrero de 2022 está generando importantes consecuencias en todos los ámbitos, agravando la crisis de los precios energéticos que se está sufriendo en Europa, especialmente desde el segundo semestre de 2021.

Con el fin de mitigar de manera inmediata el impacto en empresas y profesionales de la escalada del precio de los carburantes que ha provocado la agresión militar a Ucrania, se aprobó el Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptaban medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, dirigidas al sector del transporte por carretera y ferrocarril. El mantenimiento del conflicto bélico y de sus efectos sobre el nivel general de precios llevó a que se aprobara un segundo paquete de medidas mediante el Real Decreto-Ley 14/2022, de 1 de agosto.

La persistencia de esta situación justifica que se renueven las ayudas directas al sector del transporte por carretera, a tal fin se ha aprobado el Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción a la isla de la Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.

Asimismo, el artículo 39 del mencionado Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, determina que son las instituciones vascas competentes para la gestión de las ayudas correspondientes a los solicitantes cuyo domicilio radique en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En consecuencia, mediante la presente orden foral, se regula el procedimiento para la concesión de las ayudas directas a empresas y profesionales especialmente afectados por la subida de precios de los carburantes y su correspondiente provisión de fondos, que de conformidad con lo previsto en el artículo 39 del citado Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único. Procedimiento para la concesión de ayudas directas a empresas y profesionales especialmente afectados por la subida de los precios de los carburantes.

Uno. Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto de la presente orden foral es regular el procedimiento para la concesión de la ayuda directa extraordinaria y temporal para sufragar el precio de determinados productos energéticos para las empresas de transporte por carretera que

naleko gasolioagatik hidrokarburoen gaineko zergan egiten den itzulketa partzialaren onuradun ez direnak. Itzulketa hori Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta Palmako uhartearen berreraikuntzari eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko neurriei buruzko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren III. tituluko II. kapituluan araututa dago.

Bi. Onuraduna.

Laguntza honen onuradun izan daitezke langile autonomoak, eta nortasun juridikoa duten sozietateak, Espainian legez eratuak, egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan izanik baldiniza hauek betetzen dituztenak:

a) VDE, VT, VTC, VSE, MDPE eta MDLE motetatik edozeinetako garraio-baimen baten titular izatea, baimenari atxikitako ibilgailu kopurua eta tipologia kontuan hartuta, eta 2022ko abenduaren 28an Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan alta emanda egotea.

b) Onuradun izan daitezke, halaber, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko erabilera-irizpidearen araberrako sailkapenari jarraikiz hiri-autobusen titular direnak, baldin eta Trafiko Burutza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan 2022ko abenduaren 28an alta emanda bazeuden.

Laguntzen onura ezin dute inola ere jaso Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioz Europar Batasunak ezarriak izan litzakeen zehapenek ukitutako pertsona fisiko edo sozietateek.

Laguntza hau bateraezina da abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren III. Tituluko lehen kapituluan araututako aparteko eta aldi baterako laguntza berriarekin, zeinaren hartzaileak hidrokarburoen gaineko zergaren zati baten itzulketarako eskubidea duten ibilgailuen titullarrak baitira; zergaren itzulketarako eskubide hori abenduaren 28ko 38/1992 Legeak aurreikusten du, 52 bis artikuluan. Beraz, laguntza hau ez zaie aplikatuko adierazitako itzulketa eskubidea duten ibilgailuei. 38/1992 Legearen 52 bis artikuluan arabera hidrokarburoen gaineko zergaren zati baten itzulketarako eskubiderik ez duten ibilgailuak ere edukiz gero, nolana ere, ibilgailu horien titularrek foru agindu honetan araututako laguntza eskatu ahal izango dute itzulketarako eskubiderik ez duten ibilgailu horietarako. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak horretarako jarritako formularioan, laguntza zer matrikulatutako eskatzen den adierazi beharko da.

Hiru. Eskatera eta aurkezteko epea.

Eskabideak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bidez aurkeztuko dira <https://egoitza.gipuzkoa.eus/> Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari zuzendurik, berariaz horretarako dagoen inprimaki elektronikoa beteta.

Eskatera aurkezteko, beharrezkoa da ziurtagiri elektronikoa, NAN elektronikoa edo BakQ izatea. Eskabidea hirugarren baten izenean ere aurkez daiteke, baldin eta eskabidea aurkezten duen pertsona Gipuzkoako Foru Aldundiko Ordezkarien Erroldan borondatezko ordezkaritza korporatibo gisa alta emanda badago.

Eskabide-inprimakian, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Erantzukizunpeko adierazpen bat zeinean berariaz adierazten den Ukraina inbaditzearen ondorioek enpresa eskatzailean eragin ekonomikoa izan dutela.

b) Idatzizko adierazpen bat, Ukrainiako eta Europako Aldi Baterako Esparrua aplikatuz edo Europako Batzordeak onetsitako Aldi Baterako Esparru Nazionala aplikatuz jaso den beste edozein laguntzaren berri ematen duena.

Garraio-jardueran aritzeko administrazio-baimena indarrean izateak esan nahi du enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela.

no se beneficien de la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos por el gasóleo de uso profesional que se regula en el capítulo II del título III del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra en Ucrania y de apoyo a la reconstrucción a la isla de la Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.

Dos. Beneficiario.

Pueden ser beneficiarios de esta ayuda los trabajadores/trabajadoras autónomos y sociedades con personalidad jurídica legalmente constituidas en España que se encuentren domiciliadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa:

a) Sean titulares de una autorización de transporte de cualquiera de las clases VDE, VT, VTC, VSE, MDPE, MDLE, atendiendo al número y tipología de vehículo adscrito a la autorización y que a fecha 28 de diciembre de 2022 se encuentre de alta en el Registro de empresas y Actividades de Transporte.

b) También podrá ser beneficiario quien sea titular de autobuses urbanos conforme a la clasificación por criterio de utilización del Reglamento General de Vehículos que se encuentren de alta en el Registro de vehículos de la Jefatura central de Tráfico en fecha 28 de diciembre de 2022.

Las ayudas no pueden beneficiar de modo alguno a personas físicas o sociedades afectadas por sanciones que la Unión Europea haya podido establecer a raíz de la invasión de Ucrania por parte de Rusia.

Esta ayuda es incompatible con la nueva ayuda extraordinaria y temporal regulada en el capítulo primero del Título III del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, para los titulares de los vehículos que tienen derecho a la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos prevista en el artículo 52 bis de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre. Por lo tanto, no se aplicará a los vehículos que tengan derecho a la mencionada devolución. No obstante, quienes también sean titulares de vehículos que conforme al artículo 52 bis de la Ley 38/1992, no tengan derecho a la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos, podrán solicitar la ayuda regulada en esta Orden Foral respecto a estos últimos vehículos, indicando en el formulario puesto a disposición por el Departamento de Movilidad Ordenación del Territorio la matrícula para los que se solicita la ayuda.

Tres. Solicitud y plazo de presentación.

Las solicitudes se presentarán a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa <https://egoitza.gipuzkoa.eus/> dirigida al Departamento de Movilidad Ordenación del Territorio, rellenando el formulario electrónico específico disponible a estos efectos.

Para la presentación de la solicitud es necesario disponer de certificado electrónico o DNI electrónico o BakQ. También se puede presentar el formulario en nombre de un tercero cuando la persona que presente la solicitud este dada de alta como representante voluntario corporativo en el Censo de Representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las personas solicitantes deberán presentar en el formulario de solicitud:

a) Una declaración responsable en la que se señale expresamente que la empresa solicitante se ha visto afectada económicamente por las consecuencias derivadas de la invasión de Ucrania.

b) Una declaración por escrito de cualesquiera otras ayudas que en aplicación del Marco Temporal Europeo Ucrania o del Marco Nacional Temporal aprobado por la Comisión Europea, haya recibido.

La existencia de una autorización administrativa en vigor para el ejercicio de la actividad de transporte implica que la empresa está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

Eskabideak urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.2 eta 68.4 artikuluetan xedatzen duenaren arabera aurkeztuko dira.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio datuak jasotzen ez badituzte, akatsen bat badute edo daturen bat falta badute, hamar eguneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari hutsegite horiek zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta ohartaraziko zaio zuzendu edo aurkeztu ezean eskaeran atzera egingadakotzat joko dela, adierazitako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.

Eskaera 2023ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean aurkeztuko da.

Lau. Ordainketa.

Laguntzak banku transferentzia bidez ordainduko dira, garraino-baimenaren titular den pertsona fisiko edo juridikoaren kontuan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kontu korrontearen titulartasuna egiaztatuko du, kontua honako banku hauek bada: Kutxabank, BBVA, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, Sabadell edo Caja Rural de Navarra. Egiaztapen hori egin behar ez dela iritzi gero, edo kontu korrontea adierazitako banketxeen bestelako erakunde batekoa bada, finantza-erakundearen sinadura eta zigilua beharko dira, edo, bestela, titulartasuna egiaztatzen duen banku-agiria aurkeztu beharko da. Gipuzkoako Foru Aldundia ez da ez ordaintzearen erantzule izango aurkeztutako kontu korrontea enpresa eskatzaileari ez badagokio edo banku datuak okerrak badira.

Adostutako laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, apirilaren 30etik aurrera, eta transferentzia jasota jakinarazitatzat joko da laguntza emateko erabakia.

Formularioa aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren ordainketa egin ez bada, eskabidea ezetsitatzat jo ahal izango da. Presuntziozko ezespren horren aurka berraztertzeko errekurtsioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkez daitezke.

Bost. Laguntzen zenbatekoa eta muga.

Laguntzen banakako zenbatekoa abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak, 38. artikuluan 3. puntuan xedatzen duena izango da, eta erabilera profesionaleko gasolioagatik hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partziala jasotzeko eskubiderik ez duen onuradun bakoitzak ustiatutako ibilgailu kopuruaren eta motaren arabera zehaztuko da.

Ateratzen den zenbatekoak ez du inola ere gaintutako erabiltaile bakoitzeko 500.000 euroko gehieneko zenbatekoa.

Enpresa elkartuei emandako laguntzek gehieneko kopuru hori gaintutzen badute, modu proportzionalean banatuko dira, zifra horri egiten dioten ekarpenaren arabera, ibilgailu kopurua eta mota kontuan hartuta; eta ulertuko da enpresa elkartu bakoitzak baimena ematen duela administrazio eskudunak gainerako enpresei jakinaraz diezaien arestian deskribatutako inguruabarrak gertatzen direla.

Xedapen gehigarri bakarra. Ordainketa egin aurreko bete-kizuna.

Laguntzak ordaintzeko ezinbesteko baldintza izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak datuen fitxategi informatiko hau jasotzea: abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 38. artikuluan 5. apartatuaren bigarren paragrafoan zehaztutako datu-fitxategi informatikoa. Fitxategi hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bidali beharko du.

La presentación de las solicitudes se realizará en los términos previstos en el artículo 14.2 y 68.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

La solicitud se presentará durante el periodo comprendido entre el 1 de abril y el 31 de mayo de 2023.

Cuatro. Abono.

Las ayudas se abonarán mediante transferencia bancaria a una cuenta de titularidad de la persona, física o jurídica, que figure como titular de la autorización de transporte.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará la verificación de la titularidad de la cuenta corriente siempre que la misma sea de Kutxabank, BBVA, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, Sabadell o Caja Rural de Navarra. En caso de considerar que no se debe llevar a cabo esta verificación, o si la cuenta corriente es de una entidad distinta de las mencionadas, se requerirá la firma y sello de la entidad financiera o, alternativamente, aportar documento bancario que acredite dicha titularidad. La Diputación Foral de Gipuzkoa no se hace responsable por falta de pago en caso de que la cuenta corriente presentada no corresponda a la empresa solicitante, o si los datos bancarios son erróneos.

La ayuda acordada se abonará mediante transferencia bancaria, a partir del 30 de abril, entendiéndose notificado el acuerdo de concesión por la recepción de la transferencia.

Transcurrido el plazo de tres meses desde la finalización del plazo de presentación del formulario sin haberse efectuado el pago, la solicitud podrá entenderse desestimada. Contra esta desestimación presunta se podrá interponer recurso de reposición y reclamación económico-administrativa.

Cinco. Importe y límite de las ayudas.

El importe individual de las ayudas será el establecido en el punto 3 del artículo 38 del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, que se determinará atendiendo al número y tipo de vehículo explotado por cada beneficiario que no sea susceptible de beneficiarse de la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos por el gasóleo de uso profesional.

En ningún caso, el importe resultante podrá superar la cantidad máxima por usuario de 500.000 euros.

En el caso de que las ayudas concedidas a empresas asociadas superen la señalada cantidad máxima, se repartirán de forma proporcional, en función de la contribución a esta cifra, atendiendo al número y tipo de vehículos, entendiéndose que cada una de las empresas asociadas presta su consentimiento para que la Administración competente informe al resto de que se dan las circunstancias descritas.

Disposición adicional única. Requisito previo al abono.

Será requisito necesario para proceder al abono de las ayudas la recepción por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa del fichero informático con los datos especificados en el párrafo segundo del apartado 5 del artículo 38 del Real Decreto Ley 20/2022, de 27 de diciembre. Dicho fichero deberá remitirse por la Agencia Estatal de Administración Tributaria.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean 2023ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Donostia, 2023ko maiatzaren 2a.—Rafaela Romero Pozo, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatua. (3384)

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y producirá efectos desde el día 1 de abril de 2023.

San Sebastián, a 2 de mayo de 2023.—La diputada foral del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, Rafaela Romero Pozo. (3384)